

BILBOKO
HIRUHILEKO
KOIUNTURA
TXOSTENA
2024

Bilbao Observatorio

LABURPENEA

Irail bukaerako jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren adierazleek baieztatu egin dituzte ekitaldiko emaitzak jarraipenekoak izango zirela zioten aurreikuspenak; hala, ekitaldi honetan, emaitzak bakarrik pixka bat hobetuko liriteke 2023koekin alderatuta. Eragozpen nagusia % 2ren bidera itzultzean gertatutako inflazio irmoa izan da; hala, % 2ko mugara iritsi eta gero, errazagoa izan da interes-tasen beherako berrikuspenak egitea. Modu horretan, orokorrean, eta ekonomia bakoitzaren arabera, 2024rako itxaroten ziren emaitzak arinki berrikusi dira eta, batez ere, 2025erako atzeratu da emaitza hobeak lortzearen helburua.

Urtarriletik irailera arteko balantzeak 2024rako itxaropenak finkatzen ditu eta jarraipen-ekitaldia izaten ari da

Balantze hori, nagusiki, hazkunde ekonomikorako gaitasuna duten ekonomia aurreratuei eta emergentei aplikatzen zaie eta justifikatu beharra dago Nazioarteko Diru Funtzak (urria) mantendu egingo dituela 2024rako munduko ekonomiarako aurreikuspenak (+% 3,2) eta 2025erako 1 hamarren (+% 3,2) murriztuko dituela. Doikuntza hori AEBrako aurreikuspenak hobetu izanaren (+% 2,8, +2 hamarren) eta Eurogunearen (+% 0,8, -1 hamarren) dinamismo txikiagoaren emaitza da; Alemaniari esleitu zaion itxaropen txarragoak (% 0,0, -2 hamarren) oztopatu du aurrekoa, Espainiari¹ esleitutako hobekuntzak (+% 2,9, +5 hamarren) ezin izan baitu konpentsatu.

Munduko ekonomia-hazkundera % 3,2koa izan da, inflazioaren gutxitzeari doituta

Bestalde, merkatu emergenteetako eta garatzen ari direnen ekonomietako aurreikuspenak gutxitu egin dira (-1 hamarren), Ekialde Ertaineko, Erdialdeko Asiako eta Saharaz hegoaldeko Afrikako ekonomiei esleitutako beheranzko doikuntza justifikatzen duten ezegonkortasun-faktoreekin (gerra-gatazkak, istilu zibilak eta fenomeno meteorologikoak) bat etorritz. Halaber, erakundeak Txinako aurreikuspena gutxitu du (-2 hamarren), Indiako aurreikuspena mantendu du eta Brasilekoa (+9 hamarren) eta Errusiakoa (+4 hamarren) hobetu ditu.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak esan du euskal ekonomia % 1,9 haziko dela 2024an eta % 2,1 2025ean, eta, hala, 2023an erregistratutako hazkundera (+% 2,7) finkatu egingo da ekitaldian zehar beheranzko sekuentzian (+% 2,1, +% 1,8, +% 1,8 eta +% 1,9 lehen hiruhilekotik laugarrenera). Bestalde, Eustaten informazioak aurreikuspenak baieztatzen ditu (+% 2,1, +% 1,8 eta +% 1,6% urte arteko tasan, lehen hiruhilekotik hirugarrenera -aurrerapena-) eta, beraz, urte osorako % 1,9ko aurreikuspena egingarria da.

Euskal ekonomia % 1,9 haziko da 2024an eta % 2,1 2025ean

Hiribilduko bilakaerari dagokionez, lan-merkatuko adierazleen joera positiboa azpimarratzen jarraitzen dugu: hirugarren hiruhilekoan (iraila) Bilbon 193.218 bizilagun zeuden Gizarte Segurantzara afiliatuta (+% 2,4 eta -% 0,9 urte arteko eta hiruhileko arteko tasetan). Emaitza horrekin, iraila (apirila, maiatza eta ekainarekin batera) urteko lau hilabete onenen artean dago eta hilabeteko batezbesteko afiliazioa (urtarrila-iraila) 192.350 pertsonara bultzatu du, aurreko bi urteetako zifrak gaindituz (182.756 eta 186.932, 2022ko eta 2023ko urteko batezbestekoak).

Bilboko hileko batez besteko afiliazioa 192.350 pertsonakoa da

Kontratazio berrien bilakaerak lan-merkatuaren egoera ona baieztatzen du; izan ere, hirugarren hiruhilekoan 29.181 kontratu berri egin dira (+% 1,9 eta +% 2,0, hiruhileko eta urte arteko tasetan). Metatutako balantzea (urtarrila-iraila) 84.525 kontratu berrikoa da (+% 3,0 urte arteko tasan) eta joera hobeak izan dituzte gizonen kontratazioek (+% 4,6), 16-24 urtekoen kontratazioek (+% 11,8) 45 urtekoen eta gehiagokoen kontratazioek (+% 3,7) eta zerbitzu-jardueretako kontratazioek (+% 4,5). Gainera, heren bat baino gehiago kontratu

84.525 kontratu berri (irailera arte); % 36,5 mugagabeak dira

¹ Espainiako Bankuak (+% 2,8, +5 hamarren, irailean), BBVA Researchek (+% 2,9, +4 hamarren, urrian) eta Funcasek (+% 3,0, +5 hamarren), besteak beste, antzeko berrikuspenak egin dituzte.

mugagabeak dira (% 36,5; 30.878 kontratu berri), 2023ko emaitza baino (% 39,4) ratio pixka bat txikiagoa.

Bilbon irailean erregistratu zuten langabeziak gora egin du (+% 1,6 eta +% 2,7, hiruhileko eta urte arteko tasetan) eta 21.319 langabe zeuden, baina aurtengo hirugarren zifrarik txikiena da maiatza eta ekainarekin batera (21.061 eta 20.981, hurrenez hurren). Urtariletik irailera erregistratutako langabeziaren hileko batez besteko balioa 21.479 pertsonakoa da, eta zifra horrek 2023an erregistratutakoa (21.134) pixka bat gainditzen du. Egiaz, pertsonen tipologiaren arabera bilakaerak (generoa, adina, langabezian dauden denbora edo prestazioak kobratzea) ibilbide hori partekatzen du salbuespen puntualekin, eta aldagai horren hobekuntza pixka bat apaldu dela adierazten du.

21.319 pertsona zeuden langabezian erregistratuta...

...ekainean baino +% 1,6 eta 338 pertsona gehiago

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuen arabera, 2024ko hirugarren hiruhilekorako kalkulatu dute hiribilduan 161,6 mila landun daudela; beraz, zenbatetsitako enplegu-tasa % 52,0koa da eta langabezia-tasa %8,5ekoa.

Enplegu- eta langabezia-tasa % 52,0koa eta % 8,5ekoa dira hurrenez

Urteko bigarren hiruhilekoan, Bizkaiko merkataritza-sektoreko salmentek urte arteko hazkunde handia (+% 1,5) erregistratu zuten. Emaitza positibo hori apalagoa da prezio konstanteetan (+% 0,1); modu horretan, sektore-salmentak hein handi batean prezioen osagaiarengatik hobetu dira, jardueraren hazkunde zorrotzarengatik baino gehiago. Aurreko guztiarekin, sektorearen enplegu-adierazleak hobekuntza-profila mantendu du (+% 1,7).

Merkataritza-salmentek bigarren hiruhileko positiboa baieztatzen dute (+% 1,5 eta +% 0,1 prezio arruntetan eta konstanteetan)

Lerro berari jarraikiz, txikizkako merkataritzaren adierazleak hobetzen jarraitzen du eta prezio arruntetan (+% 2,4) eta konstanteetan (+% 1,1) gorakada izan du berriro ere; horren oinarria elikadura-segmentuaren emaitza positiboa da (+% 4,5 eta +% 3,5, prezio arruntetan eta konstanteetan) eta gainerako produktuen emaitza (+% 0,1 eta -% 1,4) konpentsatu du.

...eta txikizkako merkataritza hazi egin zen (+% 2,4 eta +% 1,1 prezio arruntetan eta konstanteetan)

Hirugarren hiruhilekoko datuek baieztatzen dute gorakada handia gertatu dela Bizkaiko merkataritza-gune handien salmentetan (+% 5,4 eta +% 2,1 prezio arruntetan eta konstanteetan). Horren arrazoia elikadura-segmentuaren (+% 5,0 eta +% 1,2) eta gainerako produktuen (+% 6,2 eta +% 3,4 hurrenez hurren, prezio arruntetan eta konstanteetan) joera ona izan da. Bestalde, sektore-enpleguak hobetzen jarraitzen du (+% 0,8).

... eta merkataritza-gune handietako salmentak (+% 5,4 eta +% 2,1 prezio arruntetan eta konstanteetan)

Urteko hirugarren hiruhilekoan 3.061 ibilgailu berri matrikulatu ziren Bizkaian; zifra hori aurreko hiruhilekoko baino okerragoa da, (-% 9,8), baina urte arteko tasan hobetu egin da (+% 10,1). Aurreko guztiarekin, urteko balantze agregatua 9.752 unitatekoa da, 2023ko zifraren oso antzekoa (9.434) eta, inolaz ere, 2018ko eta 2019ko zifretatik (16.194 eta 15.340 unitate, hurrenez hurren) oso urruti dago, eta, hala, sektorearen kezka justifikatzen du horrek.

9.752 unitate berri matrikulatu ziren 2024an, 2023an baino % 3,4 gehiago

Hiribilduko udako (uztaila, abuztua eta iraila) hotel-jarduerak bilakaera negatiboa izan du, ostatu-gauen (-% 2,5) eta bidaiarien (-% 3,2) urte arteko jaitsierarekin bat etorritik, eta 2023ko udako errekor-zifretatik aldendu da. Batez ere abuztuko eta iraileko ostatu-gauetako jaitsiera handia adierazten du (-% 3,3 kasu bietan) eta gutxiago, uztaileko jaitsiera (-% 0,9).

Udako hotel-jarduerak atzera egin du bidaiari-kopuruan (-% 3,2) eta ostatu-gauetan (-% 2,5)

Emaitza horren arrazoia estatuko merkatuaren jarduera jaitsi izana da (-% 7,6 eta -% 6,0 bidaiarietan eta ostatu-gauetan) eta nazioarteko merkatua gelditu egin da (-% 0,4 aldagai bietan), eta horrek indartu egiten du hiribilduko hotel-jardueran duen garrantzia (% 62,1 eta % 63,2 bidaiarietan eta ostatu-gauetan). Batez besteko egonaldia bi egun inguruan finkatzen da.

Bilboko aireportuak hobetzen jarraitzen du eta dinamismo handia izan du urteko hirugarren hiruhilekoan erregistratutako bidaiarien mugimenduan (+% 2,2) eta urteko behin-behineko balantzean (urtarriletik irailera +% 7,8). Modu horretan, udako hiru hilabeteetan, aireportuak bi milioi bidaiari baino gehiago kudeatu ditu eta nazioarteko osagaia asko hazi da (+% 4,9) —nazioarteko ibilbide berriak sartu ziren— eta estatuko jarduera gelditu egin da (+% 0,1) —hala eta guztiz ere, jarduera osoaren % 54,4 da—. Laugarren hiruhilekoko datuak falta direla, urteko balantzeak sei milioi bidaiariak gaudituko ditu; izan ere, jada egon dira 5,2 milioi bidaiari.

Baina Loiuk hobetu egin du (+% 2,2 bidaiarien mugimenduan)

Bilboko portuko jarduera jaitsi egin da (–% 2,5, 8,4 milioi tona); emaitza hori uztaileko (–% 6,1) eta abuztuko (–% 4,5) emaitza negatiboek eragin dute eta irailean ezin izan da konpentsatu (+% 2,8). Hala eta guztiz ere, urteko behin-behineko balantzea kudeatutako 26,5 milioi tonarekin itxi da. Hala, urte arteko hazkunde handia erregistratu du (+% 5,5), bereziki solteko salgai likidoetan (+% 7,2) eta solidoetan (+% 5,1).

Portuko jarduera jaitsi egin da udan (% 2,5), baina urte osoan positiboa da (+% 5,5)

Bizkaiko industria-ekoizpenaren urte arteko bilakaera moteldu egin da urteko bigarren (–% 3,2) eta hirugarren hiruhilekoetan (uztaila-abuztua, –% 0,9) eta behin-behineko balantzea (urtarrila-abuztua) negatiboa (–% 1,4) da. Emaitza horrek zaildu egiten du urteko balantzea positiboa izatea. Izan ere, laugarren hiruhilekoak aurreko hiru hiruhilekoetan erauzketa-industriek (–% 23,7) eta energia, gas- eta ur- industriek (–% 6,7) izandako ibilbide negatiboa konpentsatu beharko luke, baina egingarriagoa litzateke manufakturen industriarako (–% 0,5) eta urarentzako (+% 2,1).

Bizkaiko industria-jarduera moteldu egin da (urtarrila-abuztua, –% 1,4)

Beste alde batetik, Bizkaiko zerbitzuen sektoreak bigarren hiruhilekoan egindako salmentek hobekuntza-joera mantentzen dute (+% 3,8 eta +% 1,6 prezio arruntetan eta konstanteetan), eta seihileko balantzea positiboa izaten lagundu dute (+% 4,6 eta +% 2,1 hurrenez hurren). Halaber, sektore-enpleguak hobetzen jarraitu zuen (+% 0,7), eta lehen seihilekoa positiboa izan zen (+% 1,0).

Lehen seihilekoan gehitu egin dira merkatu-zerbitzuetako salmentak (+% 4,6 eta +% 2,1 prezio arruntetan eta konstanteetan)

Elementu horiekin guztiekin, urteko lehen eta bigarren hiruhilekoetan BPGd-a % 2,1 eta % 1,9 hazi zen (EAEko balioen oso antzera, +% 2,1 eta +% 1,8). Dinamismo horretan, 493.972 lanpostu daude (lanaldi osoko lanpostu parekideak), hau da, urte arteko % 1,8ko hazkundera gertatu da, eta 2008ko hirugarren hiruhilekoan erregistratutako enplegu-zifrarik handienara hurbiltzen da (502.249 lanpostu).

Bigarren hiruhilekoan, Bizkaiko BPGd-a % 1,9 hazi zen, (ia) milioi erdi lanpostuk sustatuta

EAEko 2024ko lehen hiruhilekorako aurrerapen-datuek (Bizkaiaarentzat adierazgarriak dira) diote BPGd-a +% 0,4 eta +% 1,6 haziko dela hiruhileko eta urte arteko tasetan eta enplegua +% 0,3 eta +% 1,6, hurrenez hurren.

Laburbilduz: Bizkaiko eta Bilboko lehen hiru hiruhilekoetako jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren datuen arabera, urteko balantzea orokorrean positiboa izango da, baina aurreko hiru urteetan erregistratutako hobekuntza-tartearen azpitik egongo da. Azpimarratzekoa da enpleguaren jarduera positiboa (afiliazioaren eta kontratu berrien dinamismoak lagunduta), baina langabeziaren gorakadak kaltetu egin du.

Hiru hiruhilekoek enplegua berreskuratu dela baieztatzen dute

Jardueraren araberrako balantzeak argi-ilunak ditu; badirudi turismoak nolabait “goia jo” duela, merkataritza ahul dagoela eta industria eta kanpoko jarduera moteldu egin direla, baina, kontrara, itsasoko eta aireko garraioak eta merkatu-zerbitzuak gorantz doaz. BPGd-aren hazkunderaren ibilbideak profil arinki beherakorra du (hiruhilekotik hiruhilekora), baina urte osoan % 1,9 inguruan ibiliko da (2023an baino 5 hamarren gutxiago).

Badirudi 2024a nahiko positiboa izango dela

Laugarren hiruhilekoko emaitzek interes-tasen doikuntzaren inpaktua azaleratu beharko lukete jarduera ekonomikoaren pizgarrian eta industria-jardueraren eta esportatzailearen erritmoa berreskuratu beharko litzateke merkatu-zerbitzuen dinamismoaren jarraipenarekin eta kontsumoaren hobekuntzarekin (urtarokotasun-osagai argiarekin), baina inbertsio-erabakietan ere bai (enpresenak eta familienak).

... laugarren hiruhilekoa gutxienez gainerako urteko modukoa izan beharko litzateke

TESTUINGURUA

Munduko ekonomia

Nazioarteko Diru Funtsak² orain dela gutxi munduko hazkunde ekonomikorako aurreikuspenak berrikusi zituen eta ez zuen aldaketarik ezarri apirilean eta uztailean aurkeztu zituenekin alderatuta; bakarrik 2025erako datuak pixka bat beherantz doitu zituen (hamarren bat gutxiago). Erakundeak dio *"munduko hazkundera egonkor mantenduko dela, baina tasa etsigarriekin"*, pandemiaren aurretik erregistratutakoekin konparatzen badira eta, gainera, hau aurreikusi du: *"munduko hazkundera % 3,1en kokatu beharko litzateke, eta maila hori erdipurdikoa da"*. Hala, hazten doan arrisku nagusia nahiko kontrolatuta egongo litzateke, *"munduko desinflazio-prozesuak jarraitu egiten baitu"* baina dio *"zerbitzuen inflazioa handia dela oraindik ere eskualde askotan eta horrek nabarmentzen du garrantzitsua dela sektore-dinamikak ulertzea eta diru-politika horren arabera kalibratzea. Munduko ekonomiaren desoreka ziklikoak gutxitzen daudenez, epe motzeko politika ekonomikoko lehentasunak arreta handiz kalibratu behar dira, lurreratze leuna bermatzeko"*.

Munduko ekonomia
% 3,2 haziko da 2024an

Testuinguru horretan, 2024rako aurreikuspen orokorra betetzen joango litzateke eta, zehazki, hobetu egin da ekonomia aurreratueterako aurreikuspena (+1 hamarren), AEBren bultzadari esker (+2 hamarren), Eurogunerako itxaropenari aplikatutako beherakada berria konpentsatuz (-1 hamarren). Alemaniako ekonomiaren ahulezia berresten du baita ere (-2 hamarren); Frantziari esleitutako dinamismoak (+2 hamarren) ez du konpentsatu, ezta Espainiari esleitutakoak ere. Azken horretarako aurreikuspenak nabarmenki hobetu dira (+5 hamarren).

Eurogunea jarduera
okerragoa izan du
AEBrekin eta Txinarekin
alderatuta

Hazkunde ekonomikorako (BPGd-an)... (e)(a)n egindako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2024ko uztaila.		2024ko urria.	
	2024	2025	2024	2025
MUNDUKO BPGd-a	3,2	3,3	3,2	3,2
Ekonomia aurreratuak	1,7	1,8	1,8	1,8
Ameriketako Estatu Batuak	2,6	1,9	2,8	2,2
Eurogunea	0,9	1,5	0,8	1,2
Alemania	0,2	1,3	0,0	0,8
Frantzia	0,9	1,3	1,1	1,1
Italia	0,7	0,9	0,7	0,8
Espainia	2,4	2,1	2,9	2,1
Emergenteak eta garatzen ari direnak	4,3	4,3	4,2	4,2
Txina	5,0	4,5	4,8	4,5
India	7,0	6,5	7,0	6,5
Brasil	2,1	2,4	3,0	2,2
Errusia	3,2	1,5	3,6	1,3

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (data bakoitzari dagozkion aurreikuspenak)

Bestalde, merkatu emergenteetarako eta garatzen ari direnen ekonomietarako aurreikuspenak gutxitu egin dira (-1 hamarren), Ekialde Ertaineko, Erdialdeko Asiako eta Saharaz hegoaldeko Afrikako ekonomiei esleitutako beherantzko doikuntza justifikatzen

² Munduko ekonomiaren aurreikuspenen eguneraketa (2024ko urria).

duten ezegonkortasun-faktoreekin (gerra-gatazkak, istilu zibilak eta fenomeno meteorologikoak) bat etorri. Halaber, erakundeak Txinako aurreikuspena gutxitu du (-2 hamarren eta ekonomia "heldua" dela dirudi "emergentea"³ baino gehiago), Indiako aurreikuspena mantendu du eta Brasileko (+9 hamarren) eta Errusiako (+4 hamarren) aurreikuspenak hobetu ditu.

Etxeen konfiantza eta aurrezpena

	2022	2023	2023 IV	2024 I	2024 II	2024 III
Etxeen konfiantza¹ (±100)						
EB-27	-21,7	-17,1	-15,8	-14,3	-13,3	-12,0
Espainia	-26,5	-19,2	-19,1	-17,2	-14,4	-13,6
Etxeen aurrezpena²; Δ urte artekoa %	4,5	-0,4	-0,4	2,0	4,2	3,3

1. Hileko datuen hiruhilekoko batezbesteko datua eta hiruhilekoko datuen urteko batezbesteko datua. 2. Gordailuak. Hiruhilekoko datua, hiruhileko bakoitzeko azken hilabeteko itxierakoa eta urteko datua, urte bakoitzeko abenduari dagokiona. Iturria: Eurostat eta Espainiako Bankua

Lehen hiru hiruhilekoetako balantzeak Europako etxeen⁴ konfiantzaren urte arteko egonkortasuna baieztatzen du, pixkanaka jaisten ari den profilararekin (-14,3, -13,3 eta -12,0). Horrenbestez, 2024rako behin-behineko balantzeak (-13,2) 2023ko emaitzak hobetzen ditu (-17,1). Espainiako etxeek konfiantzaren berreskuratze arinaren profil hori partekatzen duten arren, oraindik ere pixka bat ezkorrak izaten jarraitzen dute (-15,0ekoa da 2024rako behin-behineko batezbestekoa).

Konfiantza-adierazlearen osagaien artean daude etxeen aurrezpen-itxaropenak (nahiko ezkorrak izaten jarraitzen dute) eta gordailuetako⁵ saldoaren bilakaerarekin kontrastatzen dute; azken horrek, urte arteko hazkunde berria izan du eta urteko hobekuntza-sekuentzia finkatzen du (+% 2,0, +% 4,2 eta +% 3,3). Hala, Espainiako etxeetako gordailuetako saldoa⁶ (urteko batezbestekoa, urtarrietatik irailera) 989.307 milioi eurokoa da. Zifra horrek 2023an erregistratutakoa hobetzen du (+% 2,4 eta 23.419 milioi euro gehiago) eta bi egitate nabarmentzen ditu; alde batetik, etxeetako errentak hobetu direla enpleguaren ibilbidea positiboa izan delako eta, beste alde batetik, prezio-oinarri handiagora egokitzeko gaitasuna dagoela eta aldi berean, prezioen hazkunde-erritmoa moteltzen ari dela.

Europako eta Espainiako etxeak geroz eta baikorragoak dira

Gordailuetako saldoa (aurrezpena) gehieneko historikoetan dago

³ Argi eta garbi % 5 baino gutxiago (2024 eta 2025erako), bi digituetatik geroz eta urrutiago, eta ez da berreskuratuko (zahartze-faktorea?).

⁴ Kontsumitzaileen konfiantza-adierazlea eraikitzeko etxeen azken eta hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomikoa, hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomikoa orokorra eta hurrengo hamabi hilabeteetako erosketari handiak kontuan hartzen dira.

⁵ Espainiako etxeetako Bestelako Finantza Erakunde Monetarioetako gordailuetako saldoa.

⁶ "Egungo aurrezpen-mailak bakarrik zalantzagarratasun handiko testuinguruetan gertatu izan dira. Zifra horiek lehen aldiz agertu dira etengabe enplegua sortzen ari den testuinguru batean. Interes-tasak murriztuta kontsumoa gehiago haziko den arren, ebidentziaren arabera, berreskurapenaren onurak kontsumitzeko joera txikiagoa duten kolektiboetan kontzentratzen ari dira". Espainiako kontsumoaren egoera, 2024ko urria. BBVA Research.

Euskal ekonomia

Eusko Jaurlaritzaren egoera makroekonomikoak⁷ (iraila) kalkulatu du euskal ekonomia % 1,9 haziko dela 2024an eta % 2,1 2025ean. Orokorrean, aurreko ekaineko aurreikuspenak mantendu dira, baina hiruhileko dinamika pixka bat ezberdina dute, Eustatek egindako BPGd-aren berrikuspenarekin bat etorritik (irailaren 24ko Kontu Ekonomikoak). Hala, diote ekitaldiko profila pixka bat beheranzkoa⁸ izango dela (+% 2,1, +% 1,8, +% 1,8 eta +% 1,9, lehen hiruhilekotik laugarrenera), eta aurreratuko dute EAEko BPGd-a % 2 inguru haziko dela.

Euskal ekonomia % 1,9 haziko da 2024an

Aurreikuspen horiek barne-eskariaren sustapenean sostengatzen dira (+% 1,9) kanpo-saldoaren ekarpenaren aurrean; azken hori hurrengo biurtekoan neutroa izango dela aurreikusi da (% 0,0). Barne-osagaiaren barnean, kontsumo publikoaren (+% 2,3) eta pribatuaren⁹ (+% 1,8) sustapena nabarmentzen da inbertsioaren hazkundearen aurrean (aurretik aurreikusitakoa baino pixka bat txikiagoa izango litzateke (+% 1,9; -0,3 ehuneko puntu ekainarekin alderatuta). Eskaintzaren ikuspegitik, sektore ekonomiko guztiak haziko dira 2024an. Azpimarratzekoa da zerbitzuen dinamismoa (+% 2,3) eta eraikuntzarena (+% 1,6) eta industriarako aurrerapen txikiagoa aurreikusi da (+% 0,6), Europako jarduera ahuldu izanak baldintzatuta.

Barne-eskariak sostengatuta (% 1,9)

Euskal Autonomia Erkidegoa. Bilakaera eta egoera makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2023p	Bilakaera (Hiruhilekoko bereizketa)				Egoera makroekonomikoa	
		24-I	24-II	24-III	24-IV	2024	2025
BPGd-a	2,7	2,1	1,8	1,8	1,9	1,9	2,1
Etxeetako kontsumoa	1,9	1,9	1,7	1,8	1,6	1,8	2,1
Kontsumo publikoa	1,3	2,6	2,2	2,6	1,9	2,3	1,9
Inbertsioa (KEG)	1,8	2,4	1,6	1,6	1,9	1,9	2,3
Barne-eskariaren ekarpena	1,8	2,2	1,7	1,9	1,7	1,9	2,1
Kanpo-saldoaren ekarpena	0,9	-0,1	0,1	-0,1	0,2	0,0	0,0
Lehen sektorea	16,0	6,5	2,8	-2,5	-3,0	0,9	-3,6
Industria eta energia	1,8	1,1	0,4	0,3	0,6	0,6	1,6
Eraikuntza	2,6	1,7	1,5	1,4	1,7	1,6	2,4
Zerbitzuak	3,0	2,4	2,3	2,4	2,3	2,3	2,2

Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritza Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2024ko iraila)

Euskal ekonomiaren termometroak¹⁰ 2024an hobekuntza iraunkorra erakusten du eta irailean urteko bigarren erregistroa izan zuen (98,8), euskal ekonomiaren hazkunde irmoaren atalazera (100) hurbilduz. Enpresa-itxaropenak hobekuntza horrekin lerrotatzen dira (55,6) eta jarduera hedatuko dela diote (>50 balioa) euskal enpresen konfiantza-adierazlea eraikitzen duten azpiadierazle ia guztietan.

“Hazkunde solidoa” enpresa-konfiantza hobetzearekin lerrotatuta dago


⁷ “Bigarren hiruhilekoko kontabilitatea argitaratu da eta ekainean argitaratutako aurreikuspenekin bat etorritik (inbertsioa salbuetsita), hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da, eta kanpoko hipotesietan ez da aldaketa handirik egin”.

⁸ Aurreko aurreikuspenek hazkunde-profila erakutsi zuten (+% 1,7, +% 1,9, +% 2,0 eta +% 2,1, hurrenez hurren).

⁹ Beste aurreikuspen batzuk baino txikiagoa da (BBVA Research); horien arabera, Espainiako etxeen kontsumoa % 2,1 haziko da (+% 2,9 BPGd-rako). Aurreikuspena gorantz berrikusi da eta EAEko ekonomiaren hazkundera % 2,0n eta % 2,8n kokatzen du 2024rako eta 2025erako, hurrenez hurrez.


¹⁰ Erreferentziatzeko unearen egoeraren adierazlea: hazkunde irmoa (100 eta gehiago), leuna (50-100) eta beherapena (50etik behera).

Euskal ekonomiaren termometroa: adierazle sintetikoa



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

...EAEko enpresa-aurreikuspenak



Iturria: Enpresa-konfiantza. Laboral Kutxa

Era berean, euskal etxeek baikortasunera hurbiltzen jarraitzen dute (-4,5) eta urteko behin-behineko emaitza (-4,4, hiru hiruhilekoetako batezbestekoa) 2022ko eta 2023ko ezkortasunetik urruntzen da (-11,0 eta -9,5 urteko batezbestekoa). Konfiantza-hobekuntza hori etxeek aurrezpen-gaitasunaren inguruan dituzten itzaropen positiboetan (3) eta langabeziaren aurreratutako hobekuntzan (0) sostengatzen da eta etxeo ekonomiaren (-6) eta ekonomia orokorraren (-15) martxari lotutako eszeptizismo handiagoa konpentsatzen du.

Euskal etxeek baikortasunera hurbiltzen jarraitzen dute

Euskal etxeen konfiantza

	2022	2023	2023 IV	2024 I	2024 II	2024 III
Etxeen konfiantza (-100 eta +100 artean)	-11,0	-9,5	-9,0	-5,3	-3,3	-4,5

Iturria: Euskal etxeen konfiantza. Laboral Kutxa

Prezioak eta inflazioa

Inflazioak % 2 azpitik itxi zuen iraila. Irailean, KPI orokorraren urte arteko hazkundera +% 1,5koa, +% 1,8koa eta +% 1,9koa izan da, estaturako, EAerako eta Bizkairako. Horrenbestez, hiru urte eta erdi geroago (42 hilabete 2021eko apiriletik, zeinak Espainiarako, EAerako eta Bizkairako +% 2,2ko, +% 2,5eko eta +% 2,5eko urte arteko hazkundera erregistratu zuen) inflazioa menderatzea lortu da eta hazkunde ekonomikoarekin atalase jasangarrirantz bideratu da.

| Inflazioa, % 2ren azpitik

Hala eta guztiz ere, azpiko osagaiak ¹¹ (+% 2,4 eta +% 2,5 estaturako eta EAerako) % 2ko atalasea gainditzen jarraitzen du eta,aldi berean, 2023ko erregistro okerrenetatik urruntzen da (+% 6,1 eta +% 6,2 urteko eta hileko batezbestekoa, Espainiakoa eta EAekoa). Egiaz, aurtengo orain arteko doikuntza-pautak jarraitzen badu (-1,2 eta -1,3 ehuneko puntu urtarrileko datuarekin alderatuta Espainian eta EAEn), oso gertagarria da % 2ren azpitik geratzea urte bukaeran edo 2025eko lehen hilabeteetan.

Hirugarren hiru hilekoko inflazioaren bilakaera oso positiboa izan da (-1,9,-1,7 eta -1,6 ekainarekin alderatuta Espainian, EAEn eta Bizkaian) eta, ziurrenik, hurrengo erronka emaitza hori oinarritzea eta finkatzea izango da. Aurrekoarekin lotuta, urriko aurrerapen-datuek diote Espainiako KPI orokorra eta azpikoa % 1,8koa eta % 2,5koa izan zela hurrenez hurren; zifra horiek iraileko emaitzen ia-ia berdinak dira (% 1,5 eta % 2,4), eta hobekuntza nolabait geratu egin da.

KPIa Espainian, EAEn eta Bizkaian

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

		KPI Orokorra			Azpiko KPIa ¹	
		Estatua	EAE	Bizkaia	Estatua	EAE
2023	iraila	3,5	3,6	3,7	5,8	6,1
	urria	3,5	3,5	3,5	5,2	5,4
	azaroa	3,2	3,4	3,5	4,5	4,8
	abendua	3,1	3,1	3,2	3,8	3,9
2024	urtarrila	3,4	3,5	3,6	3,6	3,8
	otsaila	2,8	3,1	3,3	3,5	3,9
	martxo	3,2	3,2	3,3	3,3	3,4
	apirila	3,3	3,5	3,6	2,9	3,1
	maiatza	3,6	3,9	4,0	3,0	3,3
	ekaina	3,4	3,5	3,5	3,0	3,0
	uztaila	2,8	2,9	3,1	2,8	2,9
	abuztua	2,3	2,6	2,9	2,7	3,0
	iraila	1,5	1,8	1,9	2,4	2,5

1. Prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabe. Ez dago Bizkairako eskuragarri.
Iturria: EIN

Europako ekonomiek partekatu egiten dute urteko hirugarren hiru hilekoan inflazioaren ibilbidean erregistratutako hobekuntza: egiaz, irail bukaeran, EB-27k eta Euroguneak baieztatu dute KPI orokorrean % 2 inguruko hazkundera daudela (+% 2,1 eta +% 1,7), baina

| Europako ekonomia gehienak
% 2ren azpitik...

¹¹ Elaboratu gabeko elikagaien eta energia-produktuen efektua kenduta. Ez dago Bizkairako eskuragarri.

azpiko KPIan ez (+% 2,9 eta +% 2,7); "beranduago"¹² hasi zen hazten eta % 2rako doikuntza atzeratu egingo da.

Aurreko guztiarekin, aztertutako ekonomien egoera antzekoa da KPI orokorrari dagokionez; kontrako bi muturretan daude Italia (+% 0,7) eta Herbehereak (+% 3,3). Gainera, bakarrik Italia (+% 1,9) eta Danimarka (+% 1,5) daude % 2ren azpitik azpiko inflazioaren urte arteko hazkunde-tasan. Azkenik, Espainia da doikuntzarik handiena erregistratu duen herrialdea (-1,9 eta -0,5 puntu KPI orokorraren eta azpiko KPIren hazkunderarekin alderatuta), pixka bat txikiagoa zen doikuntzarekin bat etorriz.


Azken finean, interes-tasak beherantz doitzeko baldintzak betetzen ari dira. Hala, 2024ko irailean % 2,936n dago, hain zuzen ere, orain dela urtebete erregistratutako gehieneko baliotik oso urruti (% 4,149).

EB-27ko KPI bateratua eta Europako ekonomiak. 2024ko iraila

	urte arteko tasa		Diferentzia /2024ko ekaina (ehuneko puntuak)	
	KPI Orokorra ¹	Azpiko KPIa ²	KPI Orokorra	Azpiko KPI
Eurogunea	1,7	2,7	-0,8	-0,1
Alemania	1,8	2,9	-0,7	-0,2
Frantzia	1,4	2,0	-1,1	-0,4
Espainia	1,7	2,7	-1,9	-0,5
Italia	0,7	1,9	-0,2	-0,2
Herbehereak	3,3	4,1	-0,1	0,7
Danimarka	1,2	1,5	-0,6	0,4
Suedia	1,2	2,5	-0,2	-0,3
EB-27	2,1	2,9	-0,5	-0,1

1. HICP - KPI Orokorrer bateratua; 2. HICP - Prestatu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabeko KPIa
Iturria: Eurostat

Euribor, 12 hilabete (%)



Iturria: Espainiako Bankua

¹² KPI orokorrak baino zortzi hilabete geroago, gutxi gorabehera.


EAEko BPGd-a

2024ko bigarren hiruhilekoko kontuak argitaratu¹³ zirenean, 2021eko, 2022ko eta 2023ko urteko agregatuen zenbatespen berriak sartu zituen, hauek egin eta gero: "ohiko berrikuspenak, baina 2022ko egitura-informazio osoaren berrikuspen sakona ere bai", Eurostatek ezarritako ez-ohiko berrikuspenen Europako politikari jarraikiz, erreferentzia-urtea aldatzen duena (2022ko oinarria).

EAEko ekonomiak hazkunde-joera finkatu du hirugarren hiruhilekokoan

Eskuragarri¹⁴ dagoen informazioaren arabera, EAEko ekonomia % 5,7 eta % 2,7 hazi zen 2022an eta 2023an, eta aurreko zifrak hiru eta bederatzi hamarrenean hobetu ziren, hurrenez hurren. Beste alde batetik, hiruhilekoko bilakaerak dio jarduera ekonomikoa etengabe hazi dela (+% 0,4, +% 0,4 eta +% 0,4 hiruhileko arteko tasan, 2024ko lehen hiruhilekotik hirugarrenera¹⁵), eta urte arteko profilak euskal ekonomiaren hobekuntza finkatzen du (+% 2,1, +% 1,8 eta +% 1,6, hurrenez hurren) eta, hala, sinesgarria da urteko hazkundera % 1,9n kokatzea, urteko balantzea zehaztuko duten laugarren hiruhilekoko datuak falta direla.

EAEko BPGd-a



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtarokotasun- eta egutegi-efektuen zuzendutako datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

Eskuragarri dagoen sektore-informazioak (2024ko bigarren hiruhilekoa) baieztatzen du ekoizpen-sektore guztiek lagundu dutela EAEko ekonomiaren hazkundera, eta zerbitzu-sektorearen dinamismoa azpimarratzen da (urte arteko +% 2,3), zeinak lehen sektorearekin batera (+% 2,8), euskal BPGd-aren hazkunde osoa gainditzen duen (+% 1,8). Bitartean, eraikuntza-sektoreak (+% 1,5) eta, bereziki, industriak (+% 0,4) aurrerapen txikiagoa izan dute. Modu horretan, zerbitzu-sektoreak euskal ekonomian duen pisua indartzen du (% 70,7), industria-jardueraren ekarpenarekin (% 23,2), eraikuntza-industriaren ekarpenarekin (% 5,3) eta azkenik, lehen sektorearen ekarpenarekin (% 0,9) batera.

¹³ 2024ko irailak 24.

¹⁴ Egindako berrikuspenean berriro zenbatetsi ziren denbora-serie osoko datuak, baina gaur egunera arte Eustatek bakarrik 2022-2024 urteetako datuak kalkulatu ditu berriz eta esan du hurrengo hilabeteetan aurreko serie osoa eguneratuko dela 2022ko oinarri berriarekin.

¹⁵ Aurrerapen-datua. Hiruhileko Kontu Ekonomikoen emaitzak abenduaren 5ean argitaratuko dira.

EAEko BPGd-a, sektoreen arabera

	2022	2023	Urte arteko aldakuntza-tasa, %				
			2023	2024	II	III	IV
BPGd-a	5,7	2,7	2,8	2,5	2,2	2,1	1,8
Lehen sektorea	2,2	16,0	18,8	14,4	10,3	6,5	2,8
Industria eta energia	3,9	1,8	1,5	1,7	2,0	1,1	0,4
Eraikuntza	5,8	2,6	2,6	2,3	1,8	1,7	1,5
Zerbitzuak	6,7	3,0	3,2	2,6	2,2	2,4	2,3
LOB Enplegua	2,9	1,9	1,8	1,9	2,0	2,0	1,9

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak. BPGd-a bolumen kateatuaren indizeari dagokionez, 2022ko oinarrian.

Enpleguak (lanaldi osoaren baliokidetzan) hobetzen jarraitu zuen bigarren hiruhilekoan (urte arteko +% 1,9) eta lanaldi osoaren baliokidetzan 986.407 lanpostuko oinarria¹⁶ lortu zuen. Azken urteko¹⁷ zifrarik handiena da eta hirugarren sektoreko (urte arteko +% 2,4) eta industriako (+% 1,0) enpleguaren sustapenak sostengatzen dute. Kontrara, eraikuntzari (-% 0,1) eta lehen sektoreari (-% 2,4) atxikitako enpleguak murrizketa txikia erregistratu zuen.

Kalkuluen arabera, enplegu-oinarria 990.000 LOB lanpostukoa da (aurrerapena, hirugarren hiruhilekoa)

Aurreko guztiarekin, EAEko hamar lanpostutatik zazpi zerbitzu-sektorean sortu dira (713.647 LOB lanpostu; guztiaren % 72,3), industriak hamar lanpostutatik bi sortu ditu (202.376; % 20,5) eta eraikuntzak (58.714; % 6,0) eta lehen sektoreak (11.670; % 1,0) osatzen dute EAEko enplegu-eskaintza.

¹⁶ Eustatek egindako berrikuspenek enpleguaren seriea aldatu dute baita ere; doikuntza 10.000 lanpostu ingurukoa da aurreko seriearekin alderatuta (-12.957, -12.313, -10.571 eta -10.770, 2023ko bigarren hiruhilekotik 2024ko lehen hiruhilekora).

¹⁷ 2023ko bigarren hiruhilekoaren aurreko datuak ez daude eskuragarri oinarri berriarekin, Eustatek oraindik ez baititu kalkulak berriro egin. Horregatik, ezin ditugu aurreko zifrekin kalkulatu (besteak beste, 2008ko datuekin), horrela, enpleguaren berreskuratze-maila nolakoa izan den ikusteko.


LAN-MERKATUA

Afiliazioa

2024ko hirugarren hiruhilekoan (iraileko datua) hiribilduan 193.218 afiliatu zeuden Gizarte Segurantzari. Horrek esan nahi du, urte arteko hazkundea % 2,4koa izan zela eta 4.513 afiliatuko irabazi garbia egon zela. Hala, 2024an, Bilbon sortutako enpleguak 190.000 pertsonako langa gaitu zuen —abuztuan ez ezik, 189.067 afiliatu egon zirenean— eta hilabeteko batez besteko afiliazioa 192.350 pertsonakoa izan zen, aurreko bi urteetako erregistroen ginetik (186.932 eta 182.756 afiliatu 2023an eta 2022an). Ondorioz, aurrekusten da urteko¹⁸ hazkundea gutxienez % 2 ingurukoa izango dela eta, hala, hiribilduan sortutako enpleguaren ibilbide oso positiboa baieztatzen da.

Iraileko joera onak hilabeteko batez besteko afiliazioa bultzatu du eta 192.350 afiliatu zenbatu dira

Afiliazioa



Iturria: Gizarte Segurantza

Afiliazioa, araubideen arabera

	2024-09	Δ % hiruhileko artekoa (2024ko ekainarekin alderatuta)	Δ % urte artekoa (2023ko irailarekin alderatuta)
GUZTIRA	193.218	-0,9	2,4
Araubide orokorra	164.290	-0,9	3,0
Autonomoak	21.921	-0,6	-0,2
Etxeko langileak	6.249	-2,4	-1,9
Beste batzuk	758	-1,3	-8,3

Iturria: Gizarte Segurantza

¹⁸ Urteko datua abenduan erregistratutako afiliazioaren ingurukoa da.

Afiliazioen bilakaera araubideen arabera aztertzean, baieztatu da bakarrik araubide orokorreko afiliazioa hazi dela eta hazkunde hori nahikoa izan da gainerako araubideetan erregistratutako jaitsierak konpentsatzeko. Hala, araubide orokorraren (Bilboko afiliazioaren % 85,0) afiliazio-oinarria urte arteko % 3,0 hazi da (4.743 afiliatu gehiago), eta langile autonomoen araubide berezian (-% 0,2; -41 pertsona), etxeko langileen araubide berezian (-% 1,9; -120 pertsona) eta beste araubideen taldean¹⁹ (-% 8,3; -69 pertsona) afiliatu gutxiago daude.

Afiliazioaren dinamismoa araubide orokorrean finkatu da

Gainera, hiruhileko arteko bilakaera negatiboa da kasu guztietan. Horrenbestez, irail bukaeran afiliazio-galera % 0,9koa izan zen (1.731 afiliatu gutxiago) ekaineko zifrarekin alderatuta.

Afiliatuak, jarduera-adarren arabera

	2024-09	Δ % hiruhileko artekoa (2024ko ekainarekin alderatuta)	Δ % urte artekoa (2023ko irailarekin alderatuta)
Lehen sektorea	280	11,6	-17,6
Industria eta energia	9.066	0,4	2,9
Industria	5.198	0,6	4,9
Energia	1.152	0,7	1,1
Hondakinak eta ura	2.716	0,0	-0,1
Eraikuntza	9.286	-0,9	-0,9
Eraikuntza	3.298	0,1	3,2
Eraikuntza-laguntzailea	5.988	-1,4	-2,9
Zerbitzuak	174.573	-1,0	2,6
Merkataritza	20.181	-1,6	4,6
Garraioa eta biltegiatzea	9.476	0,4	2,1
Ostalaritza	11.208	3,2	6,4
Ostatua	2.014	0,6	5,6
Informazioa eta komunikazioak	10.588	-2,3	1,8
Finantza eta aseguruak	7.582	1,9	6,4
Higiezinaren jarduerak	1.213	-1,7	0,3
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	15.239	0,4	4,4
Administraziokoak eta zerbitzu osagarriak	18.706	-2,0	2,7
Administrazio publikoa	11.915	-2,2	-1,4
Hezkuntza	24.290	0,3	2,3
Osasuna	15.497	-0,3	4,6
Gizarte-zerbitzuak	9.587	-4,7	-1,3
Aisialdi- eta kultura-jarduerak	4.028	-3,1	0,1
Etxeko langileak	6.703	-2,3	-2,0
Beste zerbitzu batzuk	6.346	-5,0	-1,0

Oharra: Guztira arteko desberdintasuna sektore-esleipena zehaztuta ez duten afiliazioei dagokie.
Iturria: Gizarte Segurantzza

¹⁹ Nekazaritza-araubidea eta itsasoko araubidea barne.

Jarduera-sektoreen arabera kalkulaturako urte arteko bilakaera ezberdina izan da. Hala, zerbitzu-sektorearen (+% 2,6) eta industria- eta energia-sektorearen (+% 2,9) afiliazioa hazi egin da, baina eraikuntzako (-% 0,9) eta lehen sektorekoa (-% 17,6) gutxitu egin da. Beste alde batetik, hiruhileko arteko emaitzak zerbitzuetako (-% 1,0) eta eraikuntzako (-% 0,9) afiliazioen dinamismo-galeraren efektua jasotzen du, eta industria eta energia (+% 0,4) eta lehen sektorea (+% 11,6) hazi egin ziren.

Urte arteko afiliazioaren igoera, zerbitzuek sustatuta

Afiliazioaren bilakaera jarduera-adarren arabera sakonago aztertuta (urte arteko zifretan), ikusten da igo egin dela ostalaritzako (+% 6,4), finantza eta aseguruetakoa (+% 6,4), ostatuetakoa (+% 5,6), osasuneko (+% 4,6), merkataritzako (+% 4,6) eta jarduera profesioaletako, zientifikoetako eta teknikoetako (+% 4,4) afiliazioa, beste batzuen artean.

Kontrara, iazko zifrarekin alderatuta, afiliazioak jaitsi dira administrazio publikoan (-% 1,4), gizarte-zerbitzuetan (-% 1,3), etxeko langileetan (-% 2,0) eta beste zerbitzu batzuetan (-% 1,0).

Benchmarkina Afiliazioa

	2024-09	Δ % hiruhileko artekoa (2024ko ekainarekin alderatuta)	Δ % urte artekoa (2023ko irailarekin alderatuta)
Madril	2.338.583	0,0	3,0
Bartzelona	1.227.111	-0,5	2,4
Valentzia	453.882	-0,1	3,7
Sevilla	404.333	0,5	2,8
Zaragoza	321.366	1,3	2,0
G-5en batezbestekoa	--	0,3	2,8
BILBO	193.218	-0,9	2,4
Vitoria-Gasteiz	128.182	-0,3	1,1
Donostia-San Sebastián	125.878	-1,0	0,0
Pamplona-Iruñea	115.990	-1,1	1,2
G-3ren batezbestekoa	--	-0,8	0,8
G-9ren batezbestekoa	--	-0,2	2,1

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Gizarte Segurantzaren datuak

Azkenik, aztertutako hiriburu guztietan afiliazioa hobetu egin da iazko zifrarekin alderatuta, baina maila ezberdinetan. Zehazki, estatuko hiriburuetan (G-5) afiliazioa batez beste % 2,8 igo zen, Valentziak (+% 3,7), Madrilek (+% 3,0), Sevillak (+% 2,8), Bartzelonak (+% 2,4) eta Zaragozak (+% 2,0) emaitza onak izan zituztelako. Euskal hiriburuen dinamismoa txikiagoa izan da (+% 0,8 izan da G-3ren batezbestekoa); Iruñeko (+% 1,2) eta Gasteizko (+% 1,1) afiliazioak igo egin ziren eta Donostiakoak egonkor mantendu ziren (+% 0,0).

Afiliazioa hobetu egin da orokorrean (urte artean)

Kontratuak

Uztailetik irailera 29.181 lan-kontratu sinatu zituzten Bilboko egoiliarrek eta 2023ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta hazkundera % 2,0koa izan da eta 579 kontratu gehiago sinatu ziren guztira. Kontratuen zifra horrekin, halaber, urteko bigarren hiruhilekoan erregistratutako kontratazioak igo ziren (+% 1,9 eta 555 kontratu gehiago).

Urtariletik irailera 84.525 kontratu berri erregistratu ziren Bilbon, 2023an baino % 3 gehiago

Bilakaera positibo horren barnean, ezberdintasunak daude kontratatutako ezaugarrietan. Hala, urte arteko ikuspegitik, emakumeek gizonak baino dinamismo handiagoa izan dute (+% 3,4 eta +% 0,7, hurrenez hurren). Halaber, 16-24 urtekoen (+% 4,9) eta 45 urtekoen eta gehiagokoen (+% 3,8) kontratazioa gehiago gehitu da 25-34 urtekoekin (+% 1,7) eta 35-44 urtekoekin alderatuta; azken talde horrek, egiaz, atzera egin du (-% 3,9).

Gainera, zerbitzu-sektoreko (+% 2,6) eta industriako (+% 4,5) kontratuak gehitu egin ziren eta eraikuntzakoak (-% 7,7) eta lehen sektorekoak (-% 20,4) gutxitu. Azkenik, kontratu mugagabeen urte arteko jaitsiera erregistratu zen (-% 1,8) eta urteko metatua 30.878 kontratu mugagabe sinatu ziren. Kontrara, behin-behineko kontratuak gehitu egin dira (+% 4,5).

...30.878 kontratu mugagabeak dira (kontratu guztien % 36,5)

Azkenik, hiruhileko arteko bilakaerak dio emakumeen kontratazioa hobetu egin dela eta gizonena egonkor dagoela (+% 4,1 eta -% 0,1, hurrenez hurren). Adin-taldean eta sektorean arabera kontratazioak gehitu egin ziren orokorrean, eta jaitsiera bakarrak 35-44 urtekoen (-% 3,5) eta eraikuntzako (-% 11,6) kontratazioetan gertatu ziren.

Kontratuak

	2024.I.	2024.II	2024.III	Δ % hiruhileko artekoa (2024ko II. hiruhilekoarekin alderatuta)	Δ % urte artekoa (2023ko III. hiruhilekoarekin alderatuta)
GUZTIRA	26.718	28.626	29.181	1,9	2,0
Emakumeak	13.060	13.957	14.523	4,1	3,4
Gizonak	13.658	14.669	14.658	-0,1	0,7
16-24 urtekoak	6.138	7.483	7.914	5,8	4,9
25-34 urtekoak	7.679	7.985	8.117	1,7	1,7
35-44 urtekoak	5.364	5.577	5.382	-3,5	-3,9
45 urtekoak eta gehiagokoak	7.537	7.581	7.768	2,5	3,8
Mugagabeak	7.945	11.769	11.164	-5,1	-1,8
Behin-behinekoak	18.766	16.857	18.017	6,9	4,5
Lehen sektorea	354	349	364	4,3	-20,4
Industria eta energia	1.941	2.214	2.355	6,4	4,5
Eraikuntza	1.130	1.122	992	-11,6	-7,7
Zerbitzuak	23.293	24.935	25.470	2,1	2,6

Bilbon bizi den populazioak erregistratutako kontratazio berriak.
Iturria: SEPE


Erregistratutako langabezia

Irailean, 21.319 langabe zeuden erregistratuta hiribilduan. Horrek esan nahi du, urte arteko hazkundera % 2,7koa eta 567 langabe gehiagokoa dela. Gorakada horretatik haratago, urteko langabeen hirugarren zifrarik txikiena da maiatzarekin (21.061) eta ekainarekin (20.981) batera, eta ekaina 21.000 langabeen azpitik geratu zen hilabete bakarra izan zen. Modu horretan, urtariletik irailera erregistratutako langabeziaren hileko batez besteko balioa 21.479 pertsonakoa da, eta zifra horrek 2023an erregistratutakoa (21.134) pixka bat gainditzen duen arren, 2022koa baino txikiagoa da (22.241).

Irailean gehitu egin zen erregistratutako langabezia (% 2,7 urte arteko tasan, 567 langabe gehiago)

Aztertutako taldeek erregistratutako bilakaera ikusirik, iraileko langabezia-igoera gizonak (+% 3,0) eta emakumeak (+% 2,5) eta lau adin-segmentuek partekatu zuten, baina neurri ezberdinetan. Zehazki, gazteenek izan zuten hazkunderik handiena (+% 12,0) gero 25-34 urtekoak (+% 7,7) eta, gutxiago, zaharragoak (+% 1,2 eta +% 0,5, hurrenez hurren 35-44 urtekoak eta 45 urtekoak eta gehiagokoak).

Erregistratutako langabezia



Iturria: SEPE

Hiruhileko arteko bilakaera negatiboa izan da; hazkundera % 1,6koa eta 338 pertsona gehiagokoa izan da ekaineko zifrarekin alderatuta. Hiruhileko arteko gorakadaren profila pixka bat handiagoa izan da emakumeen artean (+% 2,1) gizonen artean baino (+% 1,0), eta gazteen artean (+% 6,9 eta +% 6,2, 16-24 urtekoak eta 25-34 urtekoak, hurrenez hurren) zaharragoen artean baino (+% 0,5 eta -% 0,1, 35-44 urtekoak eta 45 urtekoak eta gehiagokoak, hurrenez hurren). Era berean, talde guztietan gertatu zen langabezia daramaten denborarekin bat etorritik (salbu eta 6 hilabete eta urtebete artean langabezia daramaten artean, -% 5,4), eta ez du zerikusirik prestazioak kobratzearekin (+% 2,5) edo ez kobratzearekin (+% 1,3).

Erregistratutako langabezia

	2024-09	Δ % hiruhileko artekoa (2024ko ekainarekin alderatuta)	Δ % urte artekoa (2023ko irailarekin alderatuta)
GUZTIRA	21.319	1,6	2,7
Emakumeak	12.091	2,1	2,5
Gizonak	9.228	1,0	3,0
16-24 urtekoak	1.909	6,9	12,0
25-34 urtekoak	3.520	6,2	7,7
35-44 urtekoak	4.103	0,5	1,2
45 urtekoak eta gehiagokoak	11.787	-0,1	0,5
6 hilabetera arte	6.973	6,2	5,4
6 hilabete eta urtebete artean	2.865	-5,4	-1,6
1 eta 2 urte bitartean	3.330	2,0	11,8
2 eta 3 urte bitartean	1.751	1,4	8,3
3 urtetik gora	6.400	0,1	-3,5
Ez du langabezia-prestaziorik kobratzen	15.404	1,3	3,2
Langabezia-prestazioa kobratzen du	5.915	2,5	1,5

Iturria: SEPE eta Lanbide.

Hiriburuen jokaerak (G-5 eta G-3), orokorrean, patroi horri jarraitzen dio, hiruhileko artean gorakada gertatu baita (Sevillan ez ezik, -% 1,2) urte arteko atzerapenaren testuinguruan (Bartzelona, Donostia eta Iruña ez ezik). Balantze agregatuak (G-9) Bilbon baino (+% 1,6) iguera txikiagoa baieztatu du (+% 1,2) eta urte arteko jaitsiera (-% 1,9) ere bai.

Bilakaera ezberdina da, baina langabeziaren hiruhileko arteko gorakada nagusi da

Benchmarkina Erregistratutako langabezia

	2024-09	Δ % hiruhileko artekoa (2024ko ekainarekin alderatuta)	Δ % urte artekoa (2023ko irailarekin alderatuta)
Madril	138.751	0,8	-3,3
Bartzelona	62.344	1,3	0,9
Valentzia	45.931	1,2	-3,8
Sevilla	57.101	-1,2	-8,4
Zaragoza	29.317	1,4	-2,8
G-5en batezbestekoa	--	0,7	-3,5
BILBO	21.319	1,6	2,7
Vitoria-Gasteiz	14.021	0,7	-5,7
Donostia-San Sebastián	6.620	0,3	1,5
Pamplona-Iruña	10.239	4,5	1,4
G-3ren batezbestekoa	--	1,8	-0,9
G-9ren batezbestekoa	--	1,2	-1,9

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruña G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: SEPE


Biztanleria aktiboa

Biztanleria Aktiboaren Inkestak (urteko hirugarren hiruhilekoko datuak) kalkulatu du Bilboko egoiliar aktiboak 176,7 mila pertsona zirela. Horietatik 161,6 mila pertsona lanean egongo lirateke eta 15 mila langabe. Emaitza horrekin, biztanleria aktiboa (+% 8,7), landunak (+% 7,1) eta langabeak (+% 28,2) hazi egin dira urte artean. Hiruhileko arteko bilakaerak profil ezberdina izan du, biztanleria aktiboa (-% 1,5) eta landuna (-% 0,6) eta langabeak (-% 10,7) gutxitu egin direlako.

BAIren arabera; hiribilduko 161,6 mila egoiliar daude lanean

Bilboko egoiliarren langabezia-tasa gehitu egin da (+1,3 ehuneko puntu urte artean), emakumeek joera okerragoa izan dutelako (+3,9 ehuneko puntu) eta ezin izan delako konpentsatu gizonen jaitsierarekin (-0,8 ehuneko puntu). Bestalde, enplegu-tasa hobetu egin da (+1,3 ehuneko puntu) emakumeen ratioa gehitu delako (+4,2 ehuneko puntu, eta gizonak -2,0 ehuneko puntu).

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabea



Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta, EIN (2021eko oinarria)

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabea eta adierazleak (enplegu- eta langabezia-tasa)

	2023.IV	2024.I	2024.II	2024.III	Hiruhileko artekoa	Urte artekoa
Biztanleria aktiboa (milakotan)	174,4	162,1	179,4	176,7	-1,5	8,7
Biztanleria landuna (milakotan)	160,3	145,4	162,6	161,6	-0,6	7,1
Nekazaritza	0,5	0,5	0,0	0,0	--	--
Industria	16,4	16,0	14,4	16,5	14,6	22,2
Eraikuntza	8,0	7,2	6,5	10,5	61,5	64,1
Zerbitzuak	135,4	121,7	141,8	134,7	-5,0	2,8
Langabeak (milakotan)	14,0	16,7	16,8	15,0	-10,7	28,2
Enplegu-tasa (%)	53,3	50,1	53,4	52,0	-1,5	1,3
Emakumeak	48,6	45,8	51,1	49,8	-1,3	4,2
Gizonak	58,9	54,9	56,1	54,3	-1,8	-2,0
Langabezia-tasa (%)	8,1	10,3	9,4	8,5	-0,8	1,3
Emakumeak	9,5	8,6	4,4	8,3	3,9	3,9
Gizonak	6,6	11,9	13,9	8,8	-5,2	-0,8

Enplegu-tasarako eta langabezia-tasarako aldakuntza-tasa ehuneko puntutan.

Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta, EIN (2021eko oinarria)

MERKATARITZA

2024ko bigarren hiruhilekoari buruz eguneratutako informazioak (2021eko oinarria) dio hobetu egin direla Bizkaiko merkataritza-sektorearen salmentak (+% 1,5, prezio arruntetan), eta 2024ko lehen hiruhilekoan erregistratutako atzerapen txikitik berreskuratu dira eta urteko²⁰ emaitzarik onena izan da (-% 4,2, -% 1,5, +% 1,4, -% 1,8 eta +% 1,5, urte arteko tasan, 2023ko bigarren hiruhilekotik aurrera). Hobekuntza hori txikizkako merkataritza sostengatzen²¹ da (+% 2,4) eta, bereziki, elikaduraren segmentuan (+% 4,5, +% 0,1en aldean), eta lurraldeko merkataritza-sektore osoak erregistratutako hazkundera gaitu du (+% 1,5).

Bizkaiko merkataritza-sektorearen salmentak gehitu egin dira

Profil hori prezio konstanteetan partekatu da, baina argi eta garbi dinamismoa gutxitu da prezioen aldakortasuna duen adierazlearekin alderatuta (prezio arruntak). Zehazki, bigarren hiruhilekoan erregistratutako hazkundera % 0,1ekoa izan zen eta prezio arruntena % 1,5ekoa. Horrek esan nahi du, sektore-salmenta horietan erregistratutako hobekuntzaren arrazoi nagusia prezioen gorakada izango litzatekeela eta ez lurraldeko merkataritza-jardueraren hazkunde erreala.

Beste alde batetik, sektore-enpleguak hazten jarraitzen du (+% 1,7) eta azken urteko hobekuntza-ibilbidea finkatu du (+% 1,8, +% 1,2, +% 2,5, +% 2,7 eta +% 1,7, urte arteko tasan, 2023ko bigarren hiruhilekotik aurrera). Gainera, enpleguaren hobekuntzak gaitu egiten du analizatutako aldi osoan sektore-salmentetan erregistratutako hobekuntza.

Sektore-enpleguak hobetzen jarraitzen du

Txikizkako merkataritzaren adierazleak hobetzen jarraitzen du eta prezio arruntetan (+% 2,4) eta konstanteetan (+% 1,1) gorakada berria izan du zenbatespenekin lerrotatuta; horien arabera, kontsumo pribatua hobetu egingo da eta 2024 osorako %2 ingurukoa izango da. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar dugu hobekuntza hori hein handiagoan sostengatzen dela elikadura-segmentuaren emaitza positiboan (+% 4,5 eta +% 3,5 prezio arruntetan eta konstanteetan) eta, hala, gainerako produktuen emaitza okerragoak (+% 0,1 eta -% 1,4) konpentsatu dituzte.

Merkataritza

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	(prezio arruntak)			(prezio konstanteak)		
	2023.IV	2024.I.	2024.II	2023.IV	2024.I.	2024.II
Salmenta-indizea	1,4	-1,8	1,5	0,5	-1,7	0,1
Landunen indizea	2,5	2,7	1,7	--	--	--
Txikizkako merkataritzako salmentak*	3,1	2,2	2,4	2,5	1,2	1,1
Elikagaiak	5,3	3,0	4,5	5,6	2,5	3,5
Gainerako produktuak	0,9	1,3	0,1	-0,7	-0,2	-1,4

*Indize orokorra, zerbitzugunerik gabe Bizkaiko datuak, egutegiaren eta landunen adierazlearen efektuetatik zuzenduta, datu gordinak. Uneko urteko behin-behineko datuak. 2021eko oinarria. Iturria: Eustat

²⁰ Oinarria aldatuta, metodologia sakonki eguneratu zen eta, beste batzuen artean, baliozkotze- eta egozte-metodoak eta azterketaren hizpide den biztanleriaren doikuntza (oinarri informatzailea) berrikusi ziren. Aurreko guztiarekin, adierazlearen serieak atzeraeraginean eguneratu dira, baina oraindik Eustetan webgunean argitaratu ez direnez, ez dugu aurreko informaziorik.

²¹ Ez dago eskuragarri Bizkaiko sektore-bereizketa. EAEko datu eskuragarrien arabera, bigarren hiruhilekoan, txikizkako merkataritzak (+% 2,9) eta ibilgailuen salmentak eta konponketak (+% 18,5) adierazle orokorra hobetzen lagundu dute (+% 1,7) eta handizkako merkataritzak erregistratutako atzerapena (-% 1,0) konpentsatu dute.

Hirugarren hiruhilekoan, Bilboko merkataritza-gune handien salmentek gorakada handia izan zuten, bai prezio arruntetan (+% 5,4), baita prezio konstanteetan (+% 2,1) ere, eta bigarren hiruhilekoa ekitaldiko txarrena izaten ari da (laugarren hiruhilekoa falta da, eta normalean oso positiboa izaten da). Jarduera hobetu da elikadura-produktuen salmentek (+% 5,0 prezio arruntetan eta +% 1,2 prezio konstanteetan) eta gainerako produktuen salmentek (+% 6,2 eta +% 3,4, hurrenez hurren) jokaera ona izan dutelako. Bestalde, sektore-enpleguak hobetzen jarraitzen du (+% 0,8).

Merkataritza-gune handietako salmentek hobetzen jarraitzen dute

Merkataritza-gune handiak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	(prezio arruntak)				(prezio konstanteak)			
	23.IV	24.I	24.II	24.III	23.IV	24.I	24.II	24.III
Salmentak	5,9	4,3	2,4	5,4	0,2	-0,9	-1,7	2,1
Elikagaiak	7,8	7,0	3,8	5,0	0,5	1,3	-1,3	1,2
Gainerako produktuak	2,7	-0,2	0,1	6,2	-0,2	-4,4	-2,2	3,4
Landunen indizea	2,7	1,8	0,3	0,8	--	--	--	--

Bizkaiko datuak, egutegi ondorioekin zuzendutakoak, eta enplegu-datuak, urtaroko efektua kenduta. 2021eko oinarria. Hiruhilekoko datua (hileko datuen batezbestekoa). Uneko urteko behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat

3.061 ibilgailu berri matrikulatu ziren eta zifra hori aurreko urteko erregistroen gaintik egon arren (+% 10,1), urteko bigarren hiruhilekoan erregistratutakoaren azpitik (-% 9,8) dago. Aurrekoaren arrazoa ibilgailu partikularren segmentuko (+% 12,6) eta enpresetako eta bestelako ibilgailuen segmentuko (+% 4,8) matrikulazioak urte artean gehitu izana da, baina, kontrara, hiruhileko arteko bilakaeran atzera egin dute (-% 11,8 eta -% 5,2, hurrenez hurren). Urteko metatua 9.752 unitatekoa da, 2023ko zifraren (9.434) oso antzekoa, baina 2018ko eta 2019ko zifretatik oso urruti egoten jarraitzen du (16.194 eta 15.340 unitate, hurrenez hurren).

Matrikulazioa gehitu egin da urte artean (+% 10,1), baina jaitsi egin da hiruhileko arteko tasan (-% 9,8)

Ibilgailuen matrikulazioa

	2024.I	2024.II	2024.III	Δ % hiruhileko artekoa	% Δ urte artean
Guztira	3.296	3.395	3.061	-9,8	10,1
Partikularrak	2.281	2.406	2.123	-11,8	12,6
Enpresakoak eta beste batzuk	1.015	989	938	-5,2	4,8

Bizkaiko datuak.
Iturria: Anfac

Hiribilduko merkataritza-adierazleak sektoreko afiliazioari buruzko informazioarekin osatzen dira eta, iraileko informazioarekin bat etorriz, enpleguaren dinamismoa frogatzen da; urte artean % 4,6 hazi da eta iaz baino 882 enplegu gehiago daude.

Merkataritzari lotutako enplegua hazi den arren, enpresa-sarea galdu da

Afiliazioaren jokaera ona hiribilduko merkataritza osatzen duten hiru azpisektoreek partekatzen dute, baina maila ezberdinetan. Zehazki, txikizkako merkataritzari atxikitako afiliazioa % 6,2 gehitu da azken urtean eta ibilgailuen salmenta eta konponketari dagokiona % 1 hazi da. Bukatzeko, handizkako merkataritzako afiliazioa ia-ia ez da aldatu (+% 0,1).

Merkataritzari lotutako enpresa-sarea gutxitu egin da (urte arteko $-%$ 1,1 eta -25 enpresa), berau osatzen duten hiru azpisektoreetan enpresak gutxitu baitira: txikizkako merkataritza ($-%$ 0,7), handizkako merkataritza ($-%$ 1,9) eta ibilgailuen salmenta eta konponketa ($-%$ 1,2).

Merkataritza-sektorearen adierazleak. Bilbo

	2023-12	2024-03	2024-06	2024-09	2024-09; Δ %	
					hiruhileko artean	urte arten
Afiliatuak¹	19.686	18.871	20.512	20.181	-1,6	4,6
Handizkako merkataritza	4.263	4.249	4.299	4.266	-0,8	0,1
Txikizkako merkataritza	14.293	13.487	15.059	14.779	-1,9	6,2
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.130	1.135	1.154	1.136	-1,6	1,0
Enpresak²	2.395	2.352	2.370	2.345	-1,1	-1,1
Handizkako merkataritza	591	582	583	582	-0,2	-1,9
Txikizkako merkataritza	1.638	1.604	1.627	1.602	-1,5	-0,7
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	166	166	160	161	0,6	-1,2
Soldatapeko batez besteko enplegua³	6,0	5,8	6,5	6,4	--	--
Enplegu autonomoaren %	26,5	27,6	25,5	25,7	--	--

1. Enplegua, guztira (araubide guztiei dagokiena). 2. Kotizazio-kontuak, araubide orokorreko afiliatorako euskarria. 3. Araubide Orokorrean afiliatutako pertsonak, kotizazio-kontuen guztizkoari dagokionez.
Iturria: GSDN


TURISMOA

Urteko hirugarren hiruhilekoak jarduera turistiko handieneko hilabeteak (uztaila, abuztua eta iraila) barne hartzen ditu, eta Bilboko hoteletan urte arteko % 2,5eko jaitsiera gertatu zen ostatu-gauetan eta % 3,2koa bidaiarien sarreretan. Hala, 2024ko udako balantzea 705.403 ostatu-gauetakoa eta 344.255 bidaiarietakoa da, 2023ko hirugarren hiruhilekoan jasotakoak (errekorra) baino zertxobait txikiagoak. Hala, 2024ko hirugarren hiruhilekoan 2023koan baino 18.298 ostatu-gau eta 11.532 bidaiari gutxiago erregistratu ziren.

2024ko udako jarduera turistikoa 2023koaren azpitik geratu da

Hilabeteak analizatuta, abuztua eta iraila izan dira urte arteko galerarik handienak izan dituztenak (-% 3,3, biek), eta uztaileko jaitsiera izan zen apalena (-% 0,9). Bidaiariei dagokienez, kontrara, abuztuan (125.543 bidaiari; +% 1,8) uztailean (114.157; +% 3,1) eta, batez ere, irailean (104.555; +% 5,1) baino urte arteko jaitsiera txikiagoa gertatu zen.

Bidaiariak eta ostatu-gauak Bilboko hotel-establezimenduetan



Iturria: Eustat

Analisi xeheagoa eginda, estatuko bidaiariak orokorrean gutxitu egin ziren eta kasu guztietan zifra negatiboak dituzte (-% 8,3, +% 8,0 eta +% 6,2 urte artean, uztailean, abuztuan eta irailean) eta atzeritarrak gehitu egin ziren uztailean (+% 0,4) eta abuztuan (+% 2,7), baina irailean ez (-% 4,5).

Udako balantzeak estatuko segmentuaren beheranzko joera baieztatzen du (-% 7,6) nazioarteko segmentua gelditzearekin batera (-% 0,4); azken horrek, bidaiarien fluxuaren bi heren osatzen ditu (bidaiari guztien % 62,1). Hala, eta bidaiarien inguruan esandakoarekin bat etorritik, ostatu-gauen jaitsiera gehiago kontzentratzen da estatuko segmentuan (-% 6,0) nazioartekoan baino (-% 0,4); azken horrek, jardueraren bi heren hartzen ditu (% 63,2).

Nazioarteko segmentua gelditu egin da eta ez du konpentsatu estatuko segmentuaren atzerapena

Ostatu-gauak establezimenduen kategoriaren arabera bereizita, baieztatu da bi segmentuek atzera egin dutela eta atzerapena pixka bat handiagoa izan da kategoria txikiagoko hoteletan (-% 3,9), kategoria handiagoa dutenekin alderatuta (-% 2,1). Azkenik, batez besteko egonaldiak pixka bat hobetu dira (2,03 eta 2,05 egun 2023ko eta 2024ko azken hiruhilekoetan), eta hobekuntza bakarrik estatuko segmentuan gertatu da (1,95 eta 1,99 egun, hurrenez hurren) eta atzerriko segmentua egonkor mantendu da (2,08 egun bi urteetan).

Urteko behin-behineko balantzeak dio emaitzak jarduera-bolumenarengatik positiboak izan arren, 2023ko emaitzetatik urruti egongo direla (urte horretan, hiribilduko gehieneko historikoak lortu ziren). Zaila dirudi laugarren hiruhilekoko jarduera 2024 itxeko pizgarria izatea (hala ere, bigarren hoberena izango da).

Turismoa

	2024.III	% Δ hiruhileko artean	Δ % urte artekoa	metatua, 24ko urtariletik irailera	Δ % urte artekoa
Ostatu-gauak	705.403	23,7	-2,5	1.686.419	-1,9
3 izar eta gehiagoko hotelak	535.775	24,6	-2,1	1.285.551	-0,9
3 izar baino gutxiagoko hotelak eta pentsioak	169.628	20,8	-3,9	400.868	-4,7
Estatukoak	259.820	20,5	-6,0	710.768	-6,5
Atzeritarrak	445.583	25,6	-0,4	975.651	1,8
Bidaiariak	344.255	15,9	-3,2	862.821	-1,6
Estatukoak	130.418	3,7	-7,6	393.453	-5,2
Atzeritarrak	213.837	24,8	-0,4	469.368	1,7
Batez besteko egonaldia	2,05	--	--	1,95	--

Batez besteko egonaldia: gauak/bidaiariak (egunak) *Aldakuntza ehuneko puntuetan.
Iturria: Eustat

Erreferentzia-hiriburuen artean, Zaragozan eta Sevillan (-% 2,1 eta -% 5,6), Bilbon bezala (-% 2,5%), hoteletako ostatu-gauak gutxitu egin dira urte artean eta Valentzian (+% 11,2), Bartzelonan (+% 1,2) edo Madrilen (+% 1,5) hazi egin dira eta ostatu-gauen bilakaera ona izan da. Gorantz egin dute Iruñeko (+% 10,8), Gasteizko (+% 7,3) eta Donostiako (+% 7,5) ostatu-gauak ere. Hiruhileko arteko tasan, Madril eta Sevilla izan dira aldakuntza negatiboak izan dituzten bakarrak (-% 5,6 eta -% 11,5). Bilbok (+% 23,7), Gasteizek (+% 26,5), Donostiak (+% 22,3) eta Iruñeak (+% 21,3) bi zifra hazkundeak izan dituzte.

Bilbo udako bilakaerarik txarrena izan duten erreferentzia-hiriburuen artean dago

Benchmarkina. Ostatu-gauak

	2024.II	2024.III	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Madrid	5.551.757	5.240.186	-5,6	1,5
Bartzelona	5.929.337	6.175.485	4,2	1,2
Valentzia	1.359.805	1.482.195	9,0	11,2
Sevilla	1.786.776	1.582.160	-11,5	-5,6
Zaragoza	531.010	539.128	1,5	-2,1
G-5en batezbestekoa	--	--	-0,5	1,2
BILBO	570.337	705.403	23,7	-2,5
Vitoria-Gasteiz	213.922	270.612	26,5	7,3
Donostia-San Sebastián	571.136	698.319	22,3	7,5
Pamplona-Iruñea	171.532	208.036	21,3	10,8
G-3ren batezbestekoa	--	--	23,3	8,5
G-9ren batezbestekoa	--	--	10,1	3,3

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Eustat eta EIN

GARRAIOA

Aireko garraioa

Urteko hirugarren hiruhilekoan, Loiuako aireportuak berriro ere bidaiarien urte arteko hazkundera izan du, eta seriea hasi zenetik lehen aldiz, hiruhileko batean 2 milioi bidaiari gainditu ditu (urte arteko +% 2,2 eta 2.017.790 bidaiari gehiago). Bidaiarien jatorriari erreparatuta, nazioarteko segmentuaren bilakaera (+% 4,9 urte arteko tasan) hobea izan da estatuko segmentuarekin alderatuta, azken horren profila ez baita hain dinamikoa izan (+% 0,1).

Loiuk, lehen aldiz, hiruhileko batean 2 milioi bidaiari baino gehiago izan ditu


Hiruhileko artean bidaiarien trafikoa % 8,4 hazi zen eta, berriro ere, nazioarteko bidaiariak izan dute bilakaerarik onena (+% 14,0 eta +% 4,2, nazioarteko eta estatuko bidaiariak, hurrenez hurren).

Aireko garraioa

	2024.III	% Δ urte artean	Δ % hiruhileko artekoa	Metatua, urtarriletik irailera 24	% Δ urte artean
Bidaiariak (kop.)	2.017.790	2,2	8,4	5.177.706	7,8
Hegaldi komertzialak	2.015.367	2,2	8,4	5.169.334	7,8
Estatu barnekoak	1.098.898	0,1	4,2	2.983.217	4,1
Nazioartekoak	916.469	4,9	14,0	2.186.117	13,4
Hegaldiak (kop.)	15.014	-0,4	4,1	39.862	2,3

Behin-behineko datuak.
Iturria: Aena

Bidaiariak Loiuako aireportuan, hileroko bilakaera



Jatorriaren arabera sailkapena bidaiari komertzialei dagokie. Behin-behineko datuak.
Iturria: Aena

Bidaiarien trafikoaren hilabeteko bilakaeraren xehetasunak dio hiruhileko osoan hobekuntza gertatu dela. Zehazki, iraila izan da urte arteko bilakaerarik hoberena izan duen hilabetea (+% 5,1; + 32.062 bidaiari) eta ondoren, uztailea (+% 0,9; +5.863) eta abuztua (+% 0,7; +4.775). Bidaiarien hazkunde hori nazioarteko segmentuaren bilakaera positiboan sostengatzen da; izan ere, horrekin, uztaileko eta abuztuko estatuko bidaiarien jaitsiera konpentsatu ahal izan da.

Benchmarkina bidaiariak aireportuetan

	2024.III	% Δ urte artean	Δ % hiruhileko artekoa	Metatua, 2024ko urtarriletik irailera	% Δ urte artean
Madril	18.055.524	9,5	7,0	49.772.330	10,7
Bartzelona	15.859.343	9,4	8,3	41.949.945	11,5
Valentzia	3.263.566	6,7	11,8	8.311.266	9,9
Sevilla	2.321.367	8,7	-6,3	6.850.293	14,6
Zaragoza	201.892	-2,2	9,1	528.949	-1,2
G-5en metatua	--	6,4	6,0	--	9,1
BILBO	2.017.790	2,2	8,4	5.177.706	7,8
Vitoria-Gasteiz	80.420	-21,2	3,4	202.345	-18,7
Donostia-San Sebastián	140.103	-6,5	1,6	367.086	0,3
Pamplona-Iruñea	56.409	8,0	-2,9	166.940	16,8
G-3ren metatua	--	-6,6	0,7	--	-0,6
G-9ren metatua	--	1,6	4,5	--	5,7

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Behin-behineko datuak.
Iturria: Aena

Erreferentziatzen diren estatuko aireportu gehienetan bidaiari-bolumena gehitu da baita ere orain dela urtebeteko datuekin alderatuta. Zehatzago esanda, azpimarratzekoak dira Madrilgo (+% 9,5), Bartzelonako (+% 9,4), Sevillako (+% 8,7) eta Valentziako (+% 6,7) datuak, eta Zaragozako aireportua izan da estatuan bidaiari-kopurua murriztu duen bakarra (-% 2,2). Batera, estatuko bost aireportuek (G-5) urte artean % 6,4 bidaiari gehiago izan dituzte.

Euskal aireportuei dagokienez, bilakaera ezberdinak izan dituzte. Hala, Gasteizko (-% 21,2 urte arteko tasan) eta Donostiako (-% 6,5) aireportuetako bidaiarien fluxua gutxitu egin zen, eta Iruñekoak gora egin zuen, % 8,0. Aurreko guztiarekin, euskal hiriburuetan (G-3), 2024ko hirugarren hiruhilekoko bidaiarien bolumena % 6,6 hazi zen.

Itsas garraioa

Urteko hirugarren hiruhilekoan, Bilboko portutik mugitutako salgaien trafikoa 8,4 milioi tonakoa izan da, urte artean % 2,5 gutxiago. Dinamismo-galera uztailean (-% 6,1) eta abuztuan (-% 4,5) oinarritzen da, iraileko datu positiboek (+% 2,8) ezin izan baitute konpentsatu. Joera hori areagotu egiten da hiruhileko arteko konparazioan (-% 12,6).

Udan jaitsi egin da portuko jarduera


Salgaien motari dagokionez, salgai likidoak dira trafikoa gutxitu duten bakarrak (urte arteko -% 9,2). Hala ere, jardueraren % 58,8 esleituta, trafiko guztiaren emaitza baldintzatzen dute. Kontrara, salgai solidoek (+% 20,2), salgai orokorrek (+% 3,4) eta gainerako salgaiak (+% 21,9) bilakaera positiboa izan dute.

Halaber, Bilboko portuak kudeatutako ontzi-kopurua mantendu egin da (+% 0,3 urte artean; 2 ontzi gehiago) eta edukiontzia (-% 4,3) eta edukiontzietan garraiatutako salgaiak (-% 1,5) gutxitu egin dira.

Hala eta guztiz ere, urteko behin-behineko balantzea (irailera arte) kudeatutako 26,5 milioi tonarekin itxi da. Hala, urte arteko hazkunde handia erregistratu du (+% 5,5), bereziki solteko salgai likidoetan (+% 7,2) eta solidoetan (+% 5,1). Baina, egiaz, ontzi-kopurua (-% 1,0), edukiontzietako salgaiak (-% 3,9) eta edukiontzia (-% 8,2) gutxitu egin dira.

Urteko behin-behineko balantzea positiboa izan

Salgaien itsasoko garraioa



Iturria: Estatuko Portuak.

EKONOMIA PRODUKTIBOA

Barne Produktu Gordina


Bizkaiko urteko lehen zatiko jarduera ekonomikoak hazkunde iraunkorra izan du eta EAEko bilakaerarekin lerrotatu da. Zehazki, lehen eta bigarren hiruhilekoetako urte arteko hazkundeak % 2,1ekoa eta % 1,9koa izan da hurrenez hurren, eta hiruhileko arteko hazkundeak % 0,4koa izan da urteko lehen bi hiruhilekoetan. Hala, EAerako eskuragarri dagoen hirugarren hiruhilekoaren balantzea (+% 0,4 eta +% 1,6 hiruhileko eta urte arteko tasetan) Bizkairako ere erakusgarria izango litzateke.

Bizkaiko ekonomiak hobetzen jarraitzen du

Beste alde batetik, bigarren hiruhilekoan 493.972 lanpostu zeuden lurraldean (lanaldi osoko baliokidetzan) eta hiruhileko artean (+% 0,5) eta urte artean (+% 1,8) hobekuntzak egon direnez, lurraldeko enpleguaren oinarria finkatzen ari da. Hirugarren hiruhilekorako aurrerapen-datuek (EAEko erreferentzia) % 0,3ko eta % 1,6ko hazkundeak kalkulatu dituzte, hurrenez hurren.

Informazio horren barnean daude Eustatek 2022ko oinarriarekin egindako berrikuspenak²² eta bat egiten dute 2022ko kontu ekonomikoen hedapenarekin (behin betiko kalkuluak); horiek, lurraldearen hazkundeak % 6,9n eta % 2,4n kokatzen dute 2022an eta 2023an, hurrenez hurren.

Bizkaiko BPGd-a



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtarokotasun- eta egutegi-efektuen zuzendutako datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

²² Eustatek oinarria aldatu du (2022ko oinarria), Eurostateg ezarritako ez-ohiko berrikuspenen Europako politikari jarraikiz; azken horrek, helburu hori markatu zuen 2024rako aurreikusitako Kontabilitate Nazionalako hedapen guztietarako. Berrikuspen horrekin, datu horiek berriro kalkulatu dira argitaratutako urteen serie osorako eta une honetan, bakarrik 2021eko datuak daude berriro ere kalkulatu, bai kontu ekonomikoetan, bai hiruhilekoetako kontuetan ere. Hurrengo hilabeteetan, aurreko serie osoa eguneratuko da.

Industria

Bizkaiko industria-ekoizpenak²³ Europako²⁴ (Alemania, batez ere) ahultasuna partekatzen du. Hala, urtarriletik abuztura atzerapen txikia gertatu zen (-% 1,4 urte arteko tasan), manufakturen industriaren (-% 0,5), erauzketa-industriaren (-% 23,7) eta energia elektrikoaren, gasaren eta lurrunaren (-% 6,7) emaitzek baldintzatuta. Izan ere, uraren segmentuaren hobekuntzak (+% 2,1) ezin izan ditu aurreko datuak konpentsatu.

Bizkaikak industria-jardueraren murrizketa partekatzen du (-% 1,4, metatua)

Industria

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2024.I.	2024.II	2024.III	2024ko urtarriletik abuztura metatutako hazkundera
Ekoizpen-tasa	0,3	-3,2	-0,9	-1,4
Manufakturen industria	1,1	-2,5	0,6	-0,5
Erauzketa-industriak	-18,3	-26,6	-27,5	-23,7
Energia, gasa eta lurruna	-3,3	-7,3	-11,1	-6,7
Ura	1,4	2,6	2,2	2,1

Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta. 2015eko oinarria. Erreferentziako aldiko agregazio-indizearen urtetik urterako aldakuntza. 2024ko hirugarren hiruhilekoko datuak uztaileari eta abuztuari dagozkie.

Iturria: Eustat

Merkatuko zerbitzuak

Eskuragarri dagoen informazioak²⁵ (2021eko oinarria) Bizkaiko zerbitzu-sektorearen salmenten hobekuntza-profila erakusten du. Bigarren hiruhilekoan hazkundera gertatu da (+% 3,8 eta +% 1,6 prezio arruntetan eta konstanteetan) eta horrek esan nahi du urteko lehen aldiaren jarduerak balantze positiboa izan duela (+% 4,6 eta +% 2,1, hurrenez hurren). Halaber, sektore-enpleguak hobetzen jarraitu zuen (+% 0,7), eta lehen seiuhilekoa positiboa izan zen (+% 1,0).

Zerbitzuak hobetu egin ziren (+% 4,6 metatua)

Merkatuko zerbitzuak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	(prezio arruntak)			(prezio konstanteak)		
	2023.IV	2024.I.	2024.II	2023.IV	2024.I.	2024.II
Merkatu-zerbitzuen salmentak	5,2	5,5	3,8	0,6	2,6	1,6
Landunen indizea	2,8	1,3	0,7	--	--	--

Bizkaiko datuak (2021eko oinarria); egutegiaren, enpleguaren (datu gordinak) eta behin-behinekoen ondorioak zuzenduta uneko urterako.

Iturria: Eustat

²³ Industria Ekoizpenaren Indizeak (IPI) industria-sektoreko faktoreen kostuko balio erantsi gordinaren bolumenak (ekoizpen-mailak) izandako bilakaera jasotzen du prezioa kontuan hartu gabe, eta hori industriako prezioen indizearen (IPRI) bidez jasotzen da.

²⁴ Euroguneko manufaktura-sektorearen PMI adierazleak (irailean 45,0) 50etik beherako balioa du eta badirudi jarduera atzera egiten ari dela. Emaitza txarrena Alemaniakoa da (40,6), ondoren Frantziakoa (44,6) eta gero Italiakoa (48,3). Espainiak adierazlerik altuena izan du (53,0), baina industriaren pisua txikiagoa da, zalantzarik gabe.

²⁵ Oinarria aldatzean (2021eko oinarria) sakonki eguneratu da metodologia eta adierazlearen serieak ere eguneratu egin dira. Serie osoa ez dago eskuragarri oraindik, bakarrik 2023ko bigarren hiruhilekotik aurrerako datuak kontsultatu daitezke.

Kanpoko merkataritza

Uztaila-abuztua metatuan, Bizkaiko esportazioek dinamismo handia izan dute, urte arteko hazkundea % 34,4koa izan baita eta 1.332,4 mila tonakoak izan baitira. Modu horretan, lehen hiruhilekoan jarduera galdu ondoren, urteko metatuan (urtarriletik abuztura) Bizkaiko esportazioak % 8,1 gehitu dira iazko balioekin alderatuta.

Esportazioak berriro gehitu dira eta inportazioak, aldiz, jaitsi

Hala ere, uztailetik abuzturako bihilekoko emaitza negatiboa izan da inportazioen atalean eta % 11,3 jaitsi dira urte arteko tasan, 2.810,1 mila tonarekin. Aurreko guztiarekin, urteko behin-behineko balantzea (urtarriletik abuztura) pixka bat txikiagoa den atzerapenarekin itxi da (-% 0,6).

Bilakaera antzekoa da, baina tamaina ezberdinekoa diruari dagokionez: azken bihilekoan (uztaila-abuztua) esportatutako balioa gehitu egin da (+% 10,7) eta inportazioen balioa gutxitu egin da (-% 4,8). Emaitza hori mantendu egin da urteko balantzean, baina profil apalagoa izan du esportazioen (+% 0,7) eta inportazioen (-% 1,8) balioan.

Ohikoa den bezala, kanpoko merkataritza ez-energetikoak emaitza horiek aldatzen ditu: azken bihilekoan, esportazio ez-energetikoak hazi egin dira bolumenean (+% 8,5) zein balioan (+% 2,1), eta inportazioak jaitsi egin dira bolumenean (-% 1,7) eta hazi egin dira balioan (+% 1,6). Urteko metatuak, bere aldetik, urte arteko jaitziera izan du esportazio ez-energetikoen bolumenean eta balioan (-% 6,0 eta -% 6,2), eta jokaera berdina gertatu da inportazio ez-energetikoetan, dinamismoa galdu dutelako bolumenean (-% 2,5) eta balioan (-% 7,4).


Kanpoko merkataritza; moneta-balioa eta bolumena.

	2023.IV	2024.I.	2024.II	2024.III ¹	Urte arteko Δ (%)	
					2024.II	2024.III ²
Bolumena (milaka tona)						
Esportazioak, guztira	2.460,0	1.804,5	2.098,4	1.332,4	22,5	34,4
Esportazio ez-energetikoak	1.238,0	1.031,3	1.176,6	690,4	0,8	8,5
Inportazioak, guztira	3.860,9	4.339,7	4.922,8	2.810,1	2,4	-11,3
Inportazio ez-energetikoak	1.177,9	1.246,9	1.345,0	896,6	-2,2	-1,7
Balioa (milioi euro)						
Esportazioak, guztira	3.295,2	2.870,5	3.345,1	1.915,8	13,6	10,7
Esportazio ez-energetikoak	2.518,8	2.363,7	2.736,2	1.524,1	2,7	2,1
Inportazioak, guztira	3.522,7	3.864,7	4.264,8	2.472,4	5,5	-4,8
Inportazio ez-energetikoak	1.948,1	2.068,8	2.234,7	1.383,2	-4,0	1,6

Bizkaiko datuak. 1. Uztaila-abuztuari dagokion behin-behineko datua 2. Aurreko urteko uztaila-abuztuaren aldean
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Testuinguru horretan, lurraldeko kanpoko merkataritzaren saldoa defizitariora da (-556,5 mila euro), baina superabit-emaizta du osagai energetikoa ezabatu eta gero (+140,9 mila euro). Aurreko guztiarekin, eta hurrengo grafikoetan ikus daitekeen bezala, lurraldeko jarduera ez-energetikoaren pisu erlatiboa mantendu da bolumenean (esportazioen eta inportazioen % 51,8 eta % 31,9) eta ekonomian (esportazioen eta inportazioen % 79,6 eta % 55,9).


Esportazio eta inportazio ez-energetikoen ratioa



Bizkaiko datuak. 2024ko hirugarren hiruhilekoko behin-behineko datuak, uztailari eta abuztuari dagozkionak
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Hala, Bizkaiko²⁶ kanpoko jardueraren pisua pixka bat berreskuratu da urteko bigarren hiruhilekoan (+% 27,3) eta BPGd-aren bilakaerak zehaztuko du pisu hori mantenduko den, edo, kontrara, berriro jaitsiko den.

Esportazioaren ratioa BPGd-arekin alderatuta (%).



Bizkaiko datuak
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eta Hiruhilekoen kontuak (Eustat; oinarria: 2022)

²⁶ Kontu ekonomikoen oinarri-urtea aldatu denez, ez dugu seriearen inguruko informaziorik.

ENPRESA-JARDUERA


Sozietate berriak

Urteko hirugarren hiruhilekoan zehar 200 sozietate berri sortu ziren Bilbon, eta horrek esan nahi du urte arteko % 23,5eko hazkundea gertatu dela (38 sozietate berri guztira). Hala eta guztiz ere, emaitza negatiboa da urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. Zehazki, uztailetik irailera aurreko hiruhilekoan baino 21 sozietate berri gutxiago sortu ziren (-% 9,5).

Eratutako sozietate berrien kopuruak gora egin du

Jarduera-sektoreen arabera analizatuta, zerbitzuetakoak dira sortzen diren sozietate gehienak (% 84,5), eta eraikuntza-sektoreko (% 11,5) eta industriako eta energiako (% 4,0) sozietate berriak askoz ere gutxiago dira. Urte arteko bilakaera positiboa izan da kasu guztietan, baina bakarrik eraikuntza-sektoreak erregistratu du igoera sozietateen sorreran azken hiruhilekoan (+% 15,0). Hala eta guztiz ere, ez da nahikoa zerbitzuen (-% 11,1) eta industriaren eta energiaren (-% 27,3) jaitsierak konpentsatzeko. Adarren arabera, sozietate gehien dituzten jarduerak dira jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (34), ostalaritza (26), finantza- eta aseguru-jarduerak (23), eraikuntza (23), eta higiezin jarduerak (22).

Merkataritza-sozietate berriak



Iturria: Merkataritza Erregistroa

Merkataritza-sozietate berriak

	2023.IV	2024.I.	2024.II	2024.III	% Δ	
					hiruhileko artean	urte artean
Sozietate berriak	223	231	221	200	-9,5	23,5
Industria eta energia	17	23	11	8	-27,3	166,7
Eraikuntza	25	20	20	23	15,0	91,7
Zerbitzuak	181	188	190	169	-11,1	15,0

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Sozietate gehien sortu dituzten jarduerak (2024ko III. hiruhilekoan)

Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	34
Ostalaritza	26
Finantza- eta aseguru-jarduerak	23
Eraikuntza	23
Higiezin jarduerak	22

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Desegindako sozietateak

Beste alde batetik, desegindako sozietateei dagokienez, urteko hirugarren hiruhilekoan 76 sozietate desegin ziren Bilbon. Horrek esan nahi du, urte arteko igoera % 58,3koa izan zela (desegindako 28 sozietate gehiago) eta urteko bigarren hiruhilekoan desegindako sozietateekin alderatuta, % 2,7ko gehikuntza gertatu zen (2 sozietate gehiago).

Sozietate gehiago desegin dira

Zerbitzu-sektorean desegin dira sozietate gehien (65), eta, gainera, sektore bakarra da aurreko hiruhilekoarekin eta urtearekin alderatuta sozietate-desegiteak gehitu dituen (+% 8,3 eta +% 58,5, hurrenez hurren). Adarren arabera, sozietate gehien galdu dituztenak dira jarduerak profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (13), higiezin jarduerak (12), merkataritza eta konponketak (9), finantza- eta aseguru-jarduerak (8) eta eraikuntza (7). Hala, hiribilduko enpresa-jardueraren saldo garbia positiboa da, sozietate gehiago sortu baitira desegin baino, eta 124 sozietate gehiago daude Bilboko ekoizpen-sarean.

Desegindako sozietateak

	2023.IV	2024.I.	2024.II	2024.III	hiruhileko artean	% Δ urte artean
Desegindako sozietateak	94	134	74	76	2,7	58,3
Industria eta energia	3	7	5	4	-20,0	100,0
Eraikuntza	15	24	9	7	-22,2	75,0
Zerbitzuak	76	103	60	65	8,3	58,5

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Sozietate gehien desegin dituzten jarduerak (2024ko III. hiruhilekoan)

Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	13
Higiezin jarduerak	12
Merkataritza eta konponketak	9
Finantza- eta aseguru-jarduerak	8
Eraikuntza	7

Iturria: Merkataritza Erregistroa

2024ko III. hiruhilekoa

	Azken datua	Adierazleak Δ Urte artekoa (%)	Aldia
LAN-MERKATUA			
Biztanleria aktiboa (milakotan)**	176,7	8,7	III. hiruhilekoa.
Biztanleria landuna (milakotan)**	161,6	7,1	III. hiruhilekoa.
Langabeak (milakotan)**	15,0	28,2	III. hiruhilekoa.
Langabezia-tasa (%)**	8,5	1,3*	III. hiruhilekoa.
Erregistratutako langabeak (pertsona kop.)**	21.319	2,7	iraila
Afiliatuak (kop.)	193.218	2,4	iraila
Erregistratutako kontratuak (kop.) **	29.181	2,0	III. hiruhilekoa.
MERKATARITZA			
Afiliatuak	20.181	4,6	iraila
Kontsumo-prezioak (indizea)***	115,6	1,9	iraila
TURISMOA			
Ostatu-gauak (kop.)	705.403	-2,5	III. hiruhilekoa.
Bidaiariak (kop.)	344.255	-3,2	III. hiruhilekoa.
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaiariak)	2,05	0,1*	III. hiruhilekoa.
GARRAIOA			
Salgaien itsas garraioa (mila tona)	8.396,0	-2,5	III. hiruhilekoa.
Bidaiariak airez garraiatzea	2.017.790	2,2	III. hiruhilekoa.
ENPRESA-JARDUERA			
Industria-ekoizpena (indizea)**	186,5	-0,9	Uztaila-abuztua
Merkataritza-sozietate berriak (kop.)	200	23,5	III. hiruhilekoa.
Desegindako sozietateak (kop.)	76	58,3	III. hiruhilekoa.

* Ehuneko puntuak.

** Bilboko egoiliarak.

***Bizkaiari dagokion adierazlea. KPIren bilakaera, erreferentziako aldiko agregazio-indizean oinarrituta. 2021eko oinarria

Iturria: Geuk egindakoa, erakunde hauen datuetan oinarrituz: Eustat, SEPE, Lanbide, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, EIN, Estatuko Portuak, Aena eta Merkataritza Erregistroa.